GARRAIO ETA HERRILAN SAILA

3963

ERABAKIA, 1995eko irailaren 14koa, Garraio Azpiegitura zuzendariarena, «Donostialdeko trenbide sarearen eskaerari eta funtzionaltasunari buruzko azterlanak eta trenbide sarea garatzeko alternatibak erredaktatzeko laguntza teknikoa» burutzeko lehiaketarako deia egiteko dena.

Garraio Azpiegitura zuzendariak, gaurko erabakiaren bidez, aipatu laguntza teknikoa lehiaketa ireki bidez kontratatzeko espedientea onartu du eta honakook izango ditu

OINARRI-ARAUAK

Xedea.– «Donostialdeko trenbide sarearen eskaerari eta funtzionaltasunari buruzko azterlanak eta trenbide sarea garatzeko alternatibak erredaktatzeko laguntza teknikoa» burutzea.

Eskaintzen aldaerak.– Ez dago aldaera edo alternatibarik aurkezterik.

Kontrataren aurrekontua.– Gehienez ere, BEZ barne dela, zortzi milioi berrehun eta berrogeita hamar mila (8.250.000) pezetakoa izango da eta honela banatuko da:

1995 urtean: 4.000.000 PTA
1996 urtean: 4.250.000 PTA

Lanak burutzeko epea.– Kontratua burutzeko, gehienez ere, sei hilabeteko epea utziko da.

Sailkapena.– Ez da sailkapenik eskatzen.

Behin-behingo fidantza.– Kontratuaren aurrekontuaren %2koa.

Behin betiko fidantza.– Behin betiko fidantza kontratuaren aurrekontuaren %4koa izango da.

Lehiatzaileentzako agiri interesgarriak.– Oinarriarauen plegua eta gainontzeko agiriak agerian egongo dira eskaintzak aurkezteko epean Garraio Azpiegitura Zuzendaritzaren Trenbide Zerbitzuan, Bilbaoko Elkano kaleko 3.ean.

Lehiatzaileek aurkeztu beharreko agiriak.– Espediente honi dagozkion administrazio eta berariazko klausulen pleguan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte lehiatzaileek, agiri orokorrak hartzen dituen kartazalean.

Eskaintzen eredua.– Aipatutako pleguaren eraskin gisa agertzen den ereduaren araberakoa.

Eskaintzak aurkeztea.– Eskaintza ekonomikoak eskuan eraman beharko dira Garraio eta Herrilan Sailaren Erregistro Nagusira, Vitoria-Gasteizko Olagibel kaleko 38ra, 1995eko urriaren 23ko 12:00ak baino lehen. Postaz ere bidali ahal izango dira, eskaintza postan zein egunetan jarri den, egun berean kontratazio organoari telex, telekopia edo telegrama bidez jakinarazi eta egiaztatuta. Bi baldintza horiek betetzen ez badi-

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

3963

RESOLUCIÓN de 14 de septiembre de 1995, del Director de Infraestructura del Transporte, por la que se acuerda convocar concurso para la realización de la asistencia técnica de «Redacción de estudios de demanda y funcional de la red ferroviaria de la comarca de Donostia-San Sebastián y alternativas de desarrollo».

El Director de Infraestructura del Transporte, mediante resolución de fecha de hoy, ha aprobado el expediente de contratación de la asistencia técnica de referencia, por el procedimiento abierto y la forma de adjudicación de concurso, con arreglo a las siguientes.

BASES

Objeto.– La realización de la asistencia técnica de «Redacción de estudios de demanda y funcional de la red ferroviaria de la comarca de Donostia-San Sebastián y alternativas de desarrollo».

Posibilidad de introducir variantes o alternativas. No.

Presupuesto de ejecución por contrata.– Se cifra en la cuantía máxima de ocho millones doscientas cincuenta mil pesetas (8.250.000 PTA), dividido en las siguientes anualidades:

Para el año 1995: 4.000.000 PTA
Para el año 1996: 4.250.000 PTA

Plazo de ejecución.– El plazo máximo de ejecución del contrato será de seis meses.

Clasificación.– No se exige.

Fianza provisional.– 2% del presupuesto del contrato.

Fianza definitiva.– La fianza definitiva será por un importe del 4% del presupuesto del contrato.

Documentación de interés para los licitadores.– El pliego de bases, así como el resto de documentación, estará de manifiesto durante el plazo de presentación de proposiciones en la Dirección de Infraestructura del Transporte, sita en la calle Elcano, 3 de Bilbao.

Documentación a presentar por los licitadores.– Los licitadores tendrán que presentar en el sobre que contenga la documentación general, los documentos exigidos en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares aplicables al expediente que nos ocupa.

Modelo de proposición.– De acuerdo con el modelo que figura como anexo del citado pliego.

Presentación de proposiciones.– En el Registro General del Departamento de Transportes y Obras Públicas, sito en Vitoria-Gasteiz, c/ Olaguibel, n.º 38, hasta las 12:00 horas del día 23 de octubre de 1995. Igualmente podrán ser enviadas por correo dentro del plazo de admisión señalado, debiendo justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de correos y anunciar al órgano de contratación la remisión de la oferta

ra edo eskaintza igorri dela jakinarazteko agiria halakoak hartzeko epea amaitu ondoren jasotzen bada, eskaintza ez da onartuko. Dena den, eskaintza postaz bidali eta hamar egun naturaleko epean jasotzen ez bada, inolaz ere ez da onartuko.

Eskaintzen kartazalak irekitzeko egun eta tokia.– Eskaintzen kartazalak jendaurrean irekiko dira, Garraio eta Herrilan Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak Vitoria-Gasteizko Olagibel kaleko 38an duen bilkura gelan 1995eko urriaren 24ko 12:30etan.

Eskaintzaren bat postaz jasoz gero, 1995eko azaroaren 6an leku eta ordu berdinean irekitzeko utziko dira kartazalak.

Presazkotzat deklaratzea.– Erabaki honen bidez espedientea lehenbailehen izapidatu beharrekotzat jo da.

«C» kartazaleko agiri osagarriak.– Egin beharreko lanen azalpen memoria bat, lantaldearen zerrenda eta lehiaketarako aurrekontu xehea.

Vitoria-Gasteiz, 1995eko irailak 14.

Garraio Azpiegitura zuzendaria,
ENRIQUE PONTE ORDOQUI.

mediante telex, telefax o telegrama en el mismo día. Sin la concurrencia de ambos requisitos o si la comunicación de la remisión es recibida con posterioridad al transcurso del plazo de recepción de proposiciones establecido, la oferta no será admitida. Transcurridos, no obstante diez días naturales a la indicada fecha sin haberse recibido la proposición, esta no será admitida en ningún caso.

Apertura de proposiciones.– En los locales del Departamento de Transportes y Obras Públicas, sitos en Vitoria-Gasteiz, c/ Olaguibel n.º 38, a las 12:30 horas del día 24 de octubre de 1995.

En caso de recibirse alguna proposición por correo, la referida apertura se trasladará al día 6 de noviembre de 1995, a la misma hora.

Declaración de urgencia.– La tramitación del expediente ha sido declarada de urgencia por resolución del día de la fecha.

Documentación adicional en el sobre C.– Memoria descriptiva de los trabajos a realizar, equipo humano y descomposición del presupuesto de licitación.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de septiembre de 1995.

El Director de Infraestructura del Transporte,
ENRIQUE PONTE ORDOQUI.

3964

ERABAKIA, 1995eko irailaren 15ekoa, Garraio Azpiegitura zuzendariarena, «Donostia-Hendaia linean (Donostiako) Intxaurrondoko trenbide geltokiaren aurreproiektua erredaktatzeko laguntza teknikoa» burutzeko lehiaketarako deia egiteko dena.

Garraio Azpiegitura zuzendariak, gaurko erabakiaren bidez, aipatu laguntza teknikoa lehiaketa ireki bidez kontratatzeko espedientea onartu du eta honakook izango ditu

OINARRI-ARAUAK

Xedea.– «Donostia-Hendaia linean (Donostian) Intxaurrondoko trenbide geltokiaren aurreproiektua erredaktatzeko laguntza teknikoa» burutzea.

Eskaintzen aldaerak.– Ez dago aldaera edo alternatibarik aurkezterik.

Kontrataren aurrekontua.– Gehienez ere, BEZ barne dela, hamasei milioi eta bostehun mila pezetakoa (16.500.000) izango da eta honela banatuko da:

1995 urtean: 7.000.000 PTA
1996 urtean: 9.500.000 PTA

3964

RESOLUCIÓN de 15 de septiembre de 1995, del Director de Infraestructura del Transporte, por la que se acuerda convocar concurso para la realización de la asistencia técnica de «Redacción del anteproyecto de estación de ferrocarril de Intxaurrondo (Donostia-San Sebastián) en la línea Donostia-Hendaia».

El Director de Infraestructura del Transporte, mediante resolución de fecha de hoy, ha aprobado el expediente de contratación de la asistencia técnica de referencia, por el procedimiento abierto y la forma de adjudicación de concurso, con arreglo a las siguientes

BASES

Objeto.– La realización de la asistencia técnica de «Redacción del anteproyecto de estación de ferrocarril de Intxaurrondo (Donostia-San Sebastián) en la línea Donostia-Hendaia».

Posibilidad de introducir variantes o alternativas.– No.

Presupuesto de ejecución por contrata.– Se cifra en la cuantía máxima de dieciséis millones quinientas mil pesetas (16.500.000 PTA), dividido en las siguientes anualidades:

Para el año 1995: 7.000.000 PTA
Para el año 1996: 9.500.000 PTA